

FAMILIA PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN FAMILIAR

Martzial beti gustatu izan zaio arrantza egitea, orduak eta orduak ematea bere txalupa txikian lasaitasunaz gozatzen. Baina azkenaldian badirudi arrainek ihes egiten diotela, agian apur bat despistatuta dabil. Kalean ez da seguru sentitzen, ez daki gauzak non uzten dituen, ezta joan den edo etorri den ere. Ez ditu bere eguneroko xehetasunak gogoratzen. Arrain bat bezala memoria nola lausotzen den, Martzialen iragana eta oraina nola urtzen diren eta errealitate berri batera nola iristen diren aztertzen du. Poesia bisuala eta musika uztartzen duen ikuskizuna. Sentsibilitatez, maitasunez eta itxaropenez oroimen galtzearen inguruko istorioa da.

A Marcial siempre le ha gustado pescar, pasar horas y horas en su pequeña barca disfrutando de la tranquilidad. Pero últimamente parece que los peces le esquivan, tal vez es que anda un poco despistado. Ya no se siente seguro por la calle, no sabe en dónde deja las cosas, ni si ha ido o ha venido. No recuerda los detalles de su presente. Como un pez trata de cómo la memoria se diluye, cómo el pasado y el presente de Marcial se funden hasta llegar a una nueva realidad. Aborda la pérdida paulatina de la memoria en un espectáculo en el que la poesía visual y la música vertebran una historia llena de sensibilidad, cariño y esperanza.

3€/5€ | 50' | +4 urte/años

api 14 abr. 17:00
**ARRAIN
BAT BEZALA**
PRODUCCIONES
MAESTRAS

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaje escénico berrik

Azken sarrerak Pausokak ekoiztutako antzezlan musikala ikusteko!

¡Últimas entradas para asistir a la obra musical producida por Pausokak!

10€ | 5-14 urte/años | 60'



mai 18 may,
17:00/19:30
**GOIAZEN 10
KONTZERTUAK**

Gogoratu
Recuerda

mar 23 mar, 19:00
DOJI
BRODAS BROS

Brodas Bros Bartzelonako Dantza eta Hiri Kulturako Nazioarteko Konpainia Altsasura itzuli da, ikusizko eszenografiaren aitzindaria den **Desilence** taldearekin batera. Biek indarrak batzen dituzte elkarrekin "Doji" sortzeko, kolorea, erritmoa, musika eta dantza uztartzen dituen ikuskizun basatia. Lana familia osoarentzat egoki da. Dagoeneko aforo erdia saldu da, galduko duzu?

La Compañía Internacional de Danza y Cultura Urbana de Barcelona **Brodas Bros** vuelve a Altsasu, y lo hace con **Desilence** -formación pionera en escenografía visual. Ambos unen fuerzas para crear juntos 'Doji', un espectáculo brutal inmersivo con color, ritmo, música y danza para toda la familia. Medio aforo está vendido. ¿Dejarás que te lo cuenten?

8€ (<25 urte/años)/10€/12€ | 60' |
Adin guztiertzako / Todos los públicos

● Abonamenduak / Abonos

martxoa 13 marzo

Abonamendu barruan dauden ikuskizunetako sarrerak bakarrik abonamenduan salduko dira.
Venta exclusiva de abonos para los espectáculos incluidos en abono.

martxoa 18 marzo

Ikuskizun guztietarako abonamendu eta sarreren salmenta.
Venta de abonos y entradas para todos los espectáculos.

● Prezioak / Precios

Bost ikuskizunetako abonamendua

(Almacenados, Quosque Tandem Abutere, Ezkaba, Iortia Antzerki Tailerra, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa): 35€
Prezioa abonamendu gabe: 41€

Abono con 5 espectáculos

(Almacenados, Quosque Tandem Abutere, Ezkaba, Taller de Teatro Iortia, Orquesta Sinfónica de Navarra): 35€
Precio sin abono: 41€

Lau ikuskizunetako abonamendua

(Almacenados, Quosque Tandem Abutere, Ezkaba, Iortia Antzerki Tailerra): 28€
Prezioa abonamendu gabe: 31€

Abono con 4 espectáculos

(Almacenados, Quosque Tandem Abutere, Ezkaba, Taller de Teatro Iortia): 28€
Precio sin abono: 31€


● Sarrerak / Entradas

www.iortiakultura.com

Iortia Kultur Gunea
Frontoiko zeharbidea, z.g. 12:00-13:30 / 17:30-20:00

● Kultur egitaraua jaso / Mantente informada/o

Jakin ezazu Iortia Kultur Gunean zer gertatzen ari den gure buletin elektronikoaren edo whatsapp-eko kanalaren bidez.
Mantente al día de todo lo que ocurre en el Centro Cultural Iortia a través de nuestro boletín que te llegará al email o nuestro canal de whatsapp.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

NAFARRORAKO
ANTZOKI SARRIA

Sendaberri

DNA[®]
FESTIVALDNA.COM



Iortia
kultur gunea centro cultural

Iortia, luzerako geldialdia
2024ko apirila - maiatza abonamenduak

Iortia, parada y fonda

Abonos abril - mayo 2024



api 6 abr, 19:30 ALMACENADOS TXALO PRODUKZIOAK

Un encargado (Iker Galartz) a punto de jubilarse y el hombre destinado a sustituirle (Zuhaitz Gurrutxaga) comparten cinco jornadas en un mismo lugar: un enorme almacén vacío donde aparentemente nunca ocurre nada. El paso del tiempo en un reloj desajustado, el incómodo silencio entre dos desconocidos obligados a compartir un espacio, la inmovilidad del almacén, la desesperación de la espera, el conflicto entre ambos personajes y el peso de una gran mentira. Todo eso irá forjando entre ellos un vínculo inquebrantable, algo que les unirá para siempre: la conciencia de los perdedores. Una ácida comedia sobre la explotación laboral y el capitalismo por la que David Desola, el autor del texto, obtuvo el Premio Hermanos Machado.

10€/12€ | 75' | Gazte eta helduak/Público joven y adulto

Erretreta hartzeko dagoen arduraduna (Iker Galartz) eta bere lanpostuan ordezkatuko duenak (Zuhaitz Gurrutxaga), ezinbestean, bost egunez lantokia partekatuko dute, itxuraz deus gertatzen ez den almagaz huts batean. Erlojuaren tik-tak okerra, bi ezezagunen arteko isilune deserosoa, esperoan egotearen amorrazioa, bi pertsonaien arteko gatazka eta gezur handi baten zama. Baldintza guzti horien baitan, bi langileen arteko harremana estutzen joango da eta amankomunean daukaten zera horrek lotuko ditu betirako: galtzaileen kontzientzia. David Desola idazle kataluniarrek atondu duen komedia zorrotz eta garratz honek lan munduan pairatzen den esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnarketa egiten du. Antzerki-lan honek Hermanos Machado Saria jaso zuen.

api 13 abr, 19:30 EZKABA ILUNA PRODUCCIONES



Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaje eszeniko berriak

*Zure geralekuak aukera itzazu,
bezaulkiak errezerbatu eta
udaberrian zure gain egonen gara!*

*¡Elige tus paradas y reserva
tus butacas. que esta primavera
también te esperamos!*

api 12 abr, 19:00 QUOSQUE TANDEM ABUTERE ZUK PERFORMING ARTS



DNA '24
FESTIVALDNA.COM

Nafarroako Dantza Garaikidea programaren eskutik, Zuk Performing Art-en Quosque tandem abutere proiektuaren estreinaldiaz gozatu ahal izango dugu udaberri honetan. Jorge Oteizaren obran oinarrituta, Itsaso A. Cano dantzari eta koreografoak Oteizaren unibertsoari, euskal konstruktibismoari eta egile horren 1963ko saiakerari buruzko bidaia zizelkatu du. Erakusketaren aurreko astean, obraren ekoizpenerako egoitza tekniko hartuko dugu Iortian.

De la mano del programa DNA Danza Contemporánea de Navarra esta primavera podremos disfrutar del estreno de Quosque tandem abutere, de Zuk Performing Art. Inspirada en la obra de Jorge Oteiza, la bailarina y coreógrafa Itsaso A. Cano esculpe un viaje sobre el universo de Oteiza, el constructivismo vasco y el ensayo del 1963 de este autor. La semana previa a la exhibición, acogeremos la residencia técnica de producción de la obra.

6€ | 50' | Gazte eta helduak/Público joven y adulto

Nafarroako Antzoki Sarearen Sendaberri, paisaia eszeniko berriak programaren barruan, Ezkaba antzezlan Altsasura iritsiko da, Ezkabako espetxeko bizitza eta ihesa eszenaratzten dituen. Lan hungigarria da, ez bakarrik Ezkabako espetxeko bizitza nolakoa izan zen kontatzeko konpromiso historikoa hartzen duelako, baizik eta, batez ere, bertako presoen, haien familien eta elkartasun sareen bizitza erakusten duelako. Miguel Goikoetxandia, testuaren egilea eta zuzendaria, Marta Juániz, Ana Berrade, Raquel Sánchez eta David Larrearekin batera igoko da oholtzara. Apirilaren 9an, emanaldiaren aurreko hitzaldi bat egingo da, Ezkabako espetxeko datu guztiak eta historia jasoko dituen. Hartu zure gonbidapena.

Dentro del programa de la Red de Teatros de Navarra "Sendaberri, Nuevos paisajes escénicos" llega a Altsasu Ezkaba, una obra de teatro que recrea en escena la vida en prisión y la fuga de Ezkaba. Una obra emocionante, no solo con el compromiso histórico de contar cómo fue la vida en el penal, sino, sobre todo, de mostrar la vida de sus presos, familia y redes de solidaridad. Miguel Goikoetxandia, autor del texto y director, se sube al escenario junto a Marta Juániz, Ana Berrade, Raquel Sánchez y David Larrea. El 9 de abril se realizará una charla previa a la función, tratando de abarcar todos los datos del penal de Ezkaba y su historia. Retira tu invitación.

10€/12€ | 70' | Gazte eta helduak/Público joven y adulto



mai 10 may, 19:30 NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA ORQUESTA SINFONICA DE NAVARRA

Nafarroako Kontzertu Sinfonikoen Zikloaren baitan, eta bere urteroko hitzorduari leial, arden Nafarroako Orkestra Sinfonikoak bisita egingo digu José Luis López Antónen zuzendaritzapean. Programa W.A. Mozart, G.P. Telemann eta L.V. Beethoven-en obrek osatzen dute, eta Carolina Úriz biola-jotzaile nafarrak parte hartuko du.

En el marco el Ciclo de conciertos "Sinfónica en Navarra" y fiel a su cita anual, este año la Orquesta Sinfónica de Navarra nos visita dirigida por José Luis López Antón. El programa lo componen obras de W.A. Mozart, G.P. Telemann y L.V. Beethoven y contará con la participación de la violista navarra Carolina Úriz.

10€/12€ | 60' | Gazte eta helduak/Público joven y adulto



api 27 abr, 19:30 TRES AÑOS DESPUÉS IORTIA ANTZERKI TAILERRA TALLER TEATRO

Duela hiru urte gizateriak sekulako hondamendia eragin zuen munduan. Gaizki zuzendutako misil nuklear batek meteorito bat suntsitu zuen. Etxarri Aranatz tamainakoa zen, 33 km karratukoa, eta ez zuen Lurrean erortzeko asmorik. Hala ere, kolpearen ondoren, bere zati kutsatuak planeta osoan barreiatu ziren, eta erabat txikitu zuten. Hiriak irentsi zituzten zuloak sortu eta kontinente osoak zeharkatu zituzten 100 metro baino gehiagoko olatuek erabateko suntsipena erein zuten. Bizitza guztia desagertu zen. Guztia? Ez! Sakanako bazter batean emakume eta gizon talde batek aurrera jarraitzen du, ahal duten moduan... edo uzten dieten moduan. Beste behin, udaberrian, antzerki-tailerra proposamen zoragarri batekin itzuliko da, eta ezin duzu inolaz ere galdu!

Hace tres años la humanidad provocó una terrible catástrofe mundial. Un misil nuclear mal dirigido destruyó un meteorito del tamaño de Etxarri-Aranatz, 33 km cuadrados, que no tenía previsto caer en la Tierra. Sin embargo, tras el impacto sus pedazos contaminados cayeron por todo el planeta destruyéndolo por completo. Socavones que se tragaron ciudades, olas de más de 100 metros que recorrieron continentes enteros sembraron la destrucción total. Toda muestra de vida desapareció. ¿Toda? ¡No! En un reducto de la Sakana un grupo de mujeres y hombres siguen adelante como buenamente pueden... o les dejan. Una primavera más, ¡el taller de teatro vuelve con una maravillosa propuesta que no te puedes perder!

5€/6€ | 60' | Gazte eta helduak/Público joven y adulto